

Prentsa-oharra

Pieza handiak neurtzeko teknologia berriak

- ▶▶ *IK4-TEKNIKERek simulazio-, egiaztapen- eta muntaketa laguntzarako irtenbide berriak sartu nahi ditu merkatuan, osagai handiak neurtu ahal izan daitezten industrian*
- ▶▶ *Fabrikazio-prozesuan piezak neurketa-bitartekoetara eramatea saihestu nahi da*
- ▶▶ *IK4-TEKNIKER Etalon AG enpresa alemaniarrekin dabil lankidetzan, interferometriari oinarritutako irtenbideak ezarriz*

(Eibar, 2017eko urtarrilaren 12a).- Metrologia eta makinan zein prozesuan egiten den ikuskerak gero eta ezinbestekoagoak dira industria-jarduera garatu dadin. Gero eta handiagoak eta sofistikatuagoak diren osagaiak fabrikatzea eskatzen dute aeronautika, ontzigtza edo haize-energia bezalako sektoreek, eta, gauzak horrela, neurri handiko piezetan zehaztapen handiagoa lor dezaketen eta fabrikazio-prozesuan piezak neurketa-bitartekoetara eramatea saihestuko duten neurketa-irtenbideak garatu behar dira.

Eszenatoki berrira egokitzeko xedez, egun, neurketa-prozedura aurreratuekin, metrologia aurreratuko softwareekin eta neurketa-sistema eramangarriekin egiten du lan IK4-TEKNIKER euskal zentro teknologikoak, simulazio-, egiaztapen- eta muntaketa laguntzarako irtenbide berriak sartu nahi baitituzte sistema horiek merkatura.

Gaur arte, ekoizpen-gunetik hurbil kokatutako eta koordinatu bidezko neurketa-makinekin neurtu izan dira piezak. Jarduera horrek ez du ziurtatzen azken produktuaren kalitatea, eta kostu handia dakar, piezak mugitu behar izatearen ondoriozko kostuengatik batez ere.

IK4-TEKNIKERek dituen ekipo berriek, plantan bertan zehaztasun onargarria lortzeaz gain, non ingurumen-aldaketa den metrologiaren etsairik handiena, neurketen plangintza hobetzen dute, eta neurketa-estrategia aurreratuak (hala nola, trilaterazioa edo multilaterazioa) ezartzea ahalbidetzen, bolumenen eta osagai handien ziurgabetasun handia murriztea lortzeko.

Adibidetzat har dezakegu Spatial Analyzer softwarea. Tokian bertan egiten diren egiaztapen-gaitasunak areagotzea ahalbidetzen du zentro teknologikoak erabiltzen duen soluzio horrek, simulazio-erraminten bidez. Bestetik, piezak neurtzean sortzen diren ziurgabetasunak murriztea ahalbidetzen du, goi-mailako neurketa-sistemen bidezko simulazio-gaitasunari esker. Hala nola, hauek dira goi-mailako neurketa-sistema horiek: tracker laserra, fotogrametria edo beso artikulatua.

Hori dela-eta, Spatial Analyzer softwarea inpaktu handia ari da eragiten osagaien egiaztapenean eta muntaia handien muntaketan laguntzan.

Interferometria, teknologia aitzindaria

Soluzio berrien etengabeko bilaketan, teknologia lider gisa ari da kokatzen interferometria, makina-erreminta handien monitorizazioari eta geometria-egiaztapenari dagokienean.

Interferometro tradizionalak bilakaera izan dute, bolumena egiaztatzeke tracker laser erraminta bilakatu diren arte. Erraminta horiekin, bolumetrikoki egiazta eta konpentsa daitezke makina-erreminta eta koordinatuen bidez neurtzeko makina ertainak eta handiak, lan-bolumen osoan zehar, oso bizkor.

Zentzu horretan, IK4-TEKNIKER Etalon AG enpresa alemaniarrekin dabil lankidetzan, interferometriari oinarritutako irtenbideak ezarriz, makina-erremintak eta koordinatuen bidez neurtzeko makinak egiaztatzeke, konpentsatzeko eta monitorizatzeke.

Etalon AGren Multiline irtenbidea bezalakoek makinaren geometria-aldaketa kanal interferometrikoen bidez monitorizatzea lortzen dute. Bada, joera handia markatzen dute horiek makina-erreminta handien geometria-monitorizazioan.

IK4-TEKNIKERek ekoizpen-prozesu berrien eremuan duen eskarmentu handiari eta goi-mailako metrologian duen espezializazio aitortuari esker, zentro teknologikoa funtsezko pieza bihurtu da neurketa-sistemak egungo merkatuari egokitzeko saiakeran.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatua eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio aurreratua, gainazal-ingeniaritza, produktu-ingeniaritza eta IKTak). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia bezeroen beharren zerbitzura jartzeko.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel.: 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | Tel.: 637 273 728